

Aitor Galdos, txirrindularia

“Italiakoa esperientzia aberasgarria izan da”

Pasa den Azaroan, 22 urte bete berri zituela, itzuli zen Italiataik Mercatone txirrindulari taldearen afizionatu mailan 2 urtez aritu ostean. Ez da burumakur itzuli aitzitik, itxaropentsu azaldu zaigu Italia aldean bizitakoak eta etorkizunari begira dituen erronkak azaltzeko berarekin izan dugun solasaldian.

- Burumakur itzuli zara?

Ez. Hala ere, egia da Italiara joan nintzenean jendeak profesional mailara pasatzeko ideia neramala pentsatzen zuela eta orain berriz etxean ikusteak atzerapausua izan dela uste duela.

- Zein da zure iritzia?

Profesional mailara pasatzea zen helburua, baina nahiz eta lortu ez dudan oso esperientzia aberasgarria izan da. Txirrindulari gisa asko ikasi dut. Italian maila oso altua dago eta zaila da jausia ematea. Horrez gain, Igor Astarloa

Italiara ni baino 3 urte gehiago zituela joan zen. Oraindik hemen baditut aukerak aurrera egiteko.

- Igor egon zen talde berean izan zara...

Hala da. Italiako Brescia herrian egon naiz Mercatone taldeko afizionatu mailan.

- Txirrindulari maila handia da Italian ere....

Nazio askotako txirrindulariak ziren: errusiarrak, txekiarrak, belgiarrak... Profesional adinako maila zuten lasterketek.

- Emaizta onak lortu zenituen?

Zenbait lasterketa irabaztea lortu nuen eta batipat postu onak lortzea izan zen emaitzarik onena.

- Italian jarraitzeko eskaintzak bazenituen?

Beste urtebetez jarraitzeko eskaintza nuen, baina hona etortzea erabaki dut.

- Txirrindularitzaz

gain etxetik urruti bizimodua gogorra egin zaizu?

Bai, nahiko gogorra izan da. Tarteka Ermura etortzen nintzen baina etxekoan eta lagunaren hutsunea nabaritu dut.

**- Orain berriro ere Cafes Baque talde-
ra zatotz...**

Bai hala da. Afizionatu mailako puntako taldea da eta ea zortea izaten dudana.

**- Taldean beste ermuar bat ere izango
duzu Aitor Hernandez..**

Aitor oso sasoi onean dago azken aldian. Gaztea da oraindik, baina etorkizun handia dauka.


**- Laister hasiko duzuen denboraldia
prestatzen hasia zara?**

Iada egin ditugu makina bat kilometro eta hasteko gogoz nago.

**- Denboraldi hau erronka handia izan-
go da zuretzat...**

Datorren urtean profesional mailara pasatzea nahiko nuke beraz aurtengoan dudana guztia eman beharko dut.

Asier Ibaibarriaga



 **BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. ☎ 17 00 32

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak, telebistak,
bideoak, musika,
aparatoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

 **OKINDEGIA
Ignacio Peña**

Okindegiko ☎ : 17 01 69

Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea

ILEAPAINDEGIA

Traskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ennua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA